

Suzko lilia

HEDOI ETXARTE

 **S** poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2008 Hedoi Etxarte

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2008ko iraila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

SURIK EZIN ERANTZI

Poema liburu bat, idazle baten lehena. Horrek esan nahi duen guztiarekin: poeta den otso lisergiko gosetia bere lurrak —aire eremua, zehatzago?— zedarritzen, suzko liliz mugatzen ari da. Allen Ginsberg bezala, uluka sumatzen dugu otsoa, gramatika harresitzen (*barresitzen*) eta gramatikalariai haserrarazten. Lehen liburuak duen botere alkimiko hori ez da sekula errepikatuko. Tonuak eta tresnak hautatu ditu poetak: maitasunez, baina distantziarekin; ironiaz, baina zinismorik gabe; surrealismoz, baina xalotasunik gabe (edo bai, egunotan prentsa onik ez duen arren, jar dezagun xalotasun apur bat gure bizitzan... Xalotasunik gabe giza espeziea iraungi egingo litzateke eta: «Ni naïf / zu zarëfnean». Hiriko oihanean dago poeta: kiskaltzen duen pasio hori ekarri du letretara, hizkiak ogi papurrak besterik ez diren jakitun. Baina papurrak, zeren ondoren sortu dira? Desastrea edo oturuntza, zer izan da papurren aurrekari?

Zerk gidatzen du poeta? Hizkuntzen anabasa babelikoak gidatzen du, hitz bakoitzaren sukaldera txango egin eta hitzaren ifrentzua —infernua— bila-

tzeko ahaleginak, hitzek malgutik dutena ertzeraino eramateko irrika inbidiagarriak, kausa-ondorio harreman ezkutuen bila egindako indusketak, desaktibatuta aktibatzen diren esamoldeek... Ez dago errazkeriarik, ez dago preziosismorik poemotan —eta baldin badago, egilea bera arduratu da irakurlearen aurretik hura saboteatzeaz—. Bila dabilenaren bulkadak eta aldizkako tximistek argitutako neurtitzak dira, dituzten argi unek adina astintzen gaituzten arren tximistatik tximistarako tartetean dauden inoren lur eremu trumoitsu eta ilunek. T.S. Elioten *The Waste Land*, ez ote da, DJen eta *homo sampler*-en garaiotan, *The Waist Land* bilakatu, eremu sentsual eta dantzagarri, alegia?

Ez dira hauek poema politikoak. Ez dira amodiozko poemak. Ez dira poema urbanoak. Baina badira («*ta peau lisse est ma police*»): bezperako egunkari zimurtuek osatu ohatzean larrutan ari den bikote bat da poema bilduma hau («Gortinetako loreak leiho egin dira / eta zure begi eztiak / hemen behar lukete / nireen zain / eta ez Italiako zentro-ezkerreko / koalizioaren irudian»). Ohea agindutako lur da, agindutako lur huste. Lozorro zelulez mintzo da poeta, izara arteko batailez eta ausentziaz, ustekabeko leherke-

tez. Horixe dira, izatez, poemetako asko: liliz eta ezustez minatutako zelaiak. Tonu eta istorio nagusitik kanpoko elementuek tupustean zipriztindutako hari solteak aurkituko ditu irakurleak: auto batek putzu bat erdiz erdi harrapatu eta errepide ertzean gaude-nok blai uzten gaituen legez, Jackson Pollocken *dripping* eta *splashing* teknikez baliatu izan balitz bezala Hedoi Etxarte geruza ezberdinez osatutako piezak sortzeko, kemenez, amodiozko trazo amorratuz edo amorruzko trazo amodiozkoen bidez, poemategia aurrera joan ahala gero eta minimalago, gero eta zelularrago bilakatzen diren piezak.

Esaldi berean sartzen dira aspaldion publizitatearen diktadura eta geure alokairuko gelako desio zororak, barne taupada eta metroko bagoien karranka, bulebarretako errepresioa eta laztan intimoa, familia erretratua eta gerra katastrofearen argazki digitala, dutxatik atera berri den neskaren ile bustia eta —«fadoak gela altuetan nola»— airean geratzeko ahalmena duten film kubatarak. Desesperazioa globalizatu da: ez ote dugu modu estandarregi bat desesperatzeko ere?

Esloganez eta graffitiz beterik dago Hedoi Etxarteren poesia: 68ko maiatzaren muinak klonatu eta

han eta hemen ereiten ditu, XXI. mendeko zokoetan, probetxuz irakurri dituen surrealisten iragazki mutantetik pasa ostean. Esango dute surrealismoa hogeigarren mendeko kontua zela, baina, noizean behin, hizkuntza purgatu eta harengan dugun fedea berriztatzen du. André Bretonek ohartarazi gintuen: irudimenak ez dio deusi barkatzen. Ez barkatzeagatik, errealitateari ere ez dio barkatzen.

Lili bat. Joseba Sarrionandiaren poema daukagu denok buruan, Mikel Laboaren ahotsari esker hostoz hosto erantzi duguna, hainbeste aldiz. Kantu hori. Eros-aren ereserki pagaezin hori. Lili bat. Lilietan liliena. Bat eta bakarra. Eta nola liteke, hainbeste aldiz, hostoz hosto, erantzi?

Baina esku artean duzun hau bestelakoa da. Lili hau suzko lilia da: nahita ere atzeman, gorde, erantzi ezin daitekeena. Saiatu bestela sugarrari hostoak kentzen. Ahalegindu, benetan ari naiz: saiatu ez denak ez daki zer den hori. Umea sukaldeko su lama tximeleta den ustean hura hatzen artean harrapatu nahian. Nerabea txiskeroa hatz umelez itzaltzen: fakir txiki, jainko gura. Lehoia urrunetik kanpamenduko suari so, lezio zaharberri baten gomutaz.

Saiatu eta frakasatu egingo duzu. Eta berriro saiatuko zara berriro frakasatzeko. Baina hurrena, Samuel Beckettek erranak gogoan, hobeto frakasatuko duzu akaso, nahiz eta, zenbaiten aburuz, baikorregia zen Beckett aukera hori aipatzean.

Nahiz eta... saiatu.

Saiatu.

Beharbada lortuko duzue «biren artean liburua haustea: / irribarre erdian / poztasuna bikoiztea».

Beharbada, suzko lilia eranzten duzularik, harritu egingo zaitu zerorren burua ikusteak, han, erantzitako lili ezinezko horren zurrunbiloaren erdian, erretratu kubista, biluzi, gordinaren barruan, asfaltozko azalaren lurpeko erotikari katigatuta, utopiak modu ulertezinean txundituta. Poema batzuk irakurtzean gertatzen da: ezagutzen ez duzun hizkuntza batean mintzo zarela ohartzen zara.

Saiatu eranzten, suzko lilia.

HARKAITZ CANO

Agoniak hil egin dezake edo
Agoniak bizitza iraunaraz dezake
Bakea ordea izugarria da beti
Bakea gauzarik okerrena da

CHARLES BUKOWSKI

PRÉSENCE

le tabac salit aussi les lèvres plus douces

IBAI AZ BESTALDERA

Alekseievna ibai az beste aldera zela
Leonidovitxek lau egunez egin zuen igeri
harengana heltzeko
nahiz eta ibaiertza ikusi ez.
Muxu eman ostean
beste lau egun egin behar zituen igerian
etxera itzultzeko,
nahiz eta ibaiertza ikusi ez
bazekin etxea zuela amaieran.

Medusa batek Alekseievna jan zuen
heliozko egunsentian.
Orain Leonidovitxek igeri egitean
ez du helmugarik agerian,
ez du ibaiertzik itsasoraino, ez,
beso-zangoak biratzeak zentzurik ez,
nahiz eta oroitzen den
muxu eman ostean
nola hartzen zuen tea eztarrian
Alekseievnarekin.

Leonidovitx babes bila zebilen
korrontetik alde egiteko,
nahiz eta ibaiertza ikusi ez
bazekien etxea zuela amaieran.

AUTOPSIA EROKERIA DA

Esaldia arraina da
eta hitza ezkata
putzuan izerditan

zure saihetsak
taupa-taupa
biriketan

biren artean liburua haustea:
irribarre erdian
poztasuna bikoiztea

zelata itsua

esaldia arraina da
eta hitza ezkata
putzuan izerditan

ez dago garbi labana
kathyren begitik ateratzean,
ez dago garbi zirrara egin ote zion

ekaitzari haizerauntsia deitu
eta teilatupean gelditu dira hiritarrak,
lorontziak badaki zaparrada dela soilik
eta potxingoetan galtzerdiak bustitzera doa

martin-arrantzalea da ur gehien edaten duen txoria

egoeren aurrean distantzia hartzeak
egoerak beraiek hobe aztertzea ahalbidetzen du,
distantziak heriotza esan nahi du oro har,
egiatik gertuago gaude hil den hori aztertzean
eta kristo gurutzean (gurú egitean)
besarkadaren antitesi ariketa da

laburpena eta
sintesia
bipuntu
autopsia

joatean itsas paradisua gazitu dugu

ekaitzari haizerauntsia deitu
eta teilatupean gelditu dira hiritarrak,

lorontziak badaki zaparrada dela soilik
eta potxingoetan galtzerdiak bustitzera doa

zelata itsua

biren artean liburua haustea:

irribarre erdian

poztasuna bikoiztea

esaldia arraina da

eta hitza ezkata

putzuan izerditan

TEMPELHOF

tximistek gerrari men
besaulkiak azalari so
nola urak aro eroan bizirik

hiri ezezagun antzutua
mina eztarrian duela tunela,
eskailerek hiri orlegiaren sudurrean ezin egon
ura erroan dutela

jertseen zubi hegalari,
alkandora marradun;
ez da zapatarik betaurreko bibotedunentzat

garatu dut soina
kontrabaxuak ahotsa jan dezan
bulegoetan jaten diren gereziak
baina likitxagoak lili-kitsch-ak
poltsiko ikertuetan
goazenean han diren kirats zurrunetara
ikusiko ditugu pikor zuriak
gorriz zartatuta

ai ai
edalontzia aienez dardaretan

nire buruari galdetzen diot
buru-galderei oinez,
laranjek ahoa estaltzen dute
ipurdian
zazpietako kamuflaian

beltza hotzikaraz

eta ez dakit zure sudurra
edo titibidea den isurkariagoa

ez nuke zure eskuartean poltsa

beltza

ezkutatu behar,
argi dut dela elegantzia
duena bakarrik garrantzia
errima bortxatuek baino
iris-bideek
(begiraino diot)
helbideek bainoago glissandoek
bakarkako gau esan nahi dute

ez dezagun samindu

bagaude
itsusi

Ostkreuz

geltokiko bikotea
nasan
ez dut ondo ikusi

zartatutako soka gurutze *auf jeden fall*
gertatutako sakana gurutzatzea *auf keinen fall*

eta nik ez dut hain arin
gugandik alde egin

TEILATUAN EURIA

Goroldioa: teilatuko gorotza
iraultza: berekoiaaren morrontza

euria panpina da harlauzarik gabeko kalean
goitik behera argiontziak urtzen

nahi dut oheak
kukluxklanen gurutzeek bezala
su har dezan

nahi dut zure eskuek
kristal hautsien gauean reichtagak lez
hauts ditzan prakak

eta nahi dut gure arratsa
kaioak galizan bezala
belztu dadin

iluna gerturatzean ohartuko zara
beldurra pospolo kaxetan baino hobe
gordetzen dela teilatupean

beldurra: goroldioa gure etxeetan

jan eta jan

edan eta txotx!

euria eta iraultza

kukluxklanen gurutzeak itzaltzen

goroldioa: teilatuko gorotza

iraultza: berekoiaren murrontza

teilatua: goroldioen kolaxa

METRAILETEN MUGAK

Foucaultentzat erresistentzia, delitugintza,
lege-haustek eta,
beraz, transgresio mota guztiak bi
helbururen zerbitzura daude:
lehenik, sistemaren baitan gorpuztea
honen boterea berresteko;
bigarrenik, sistemari bere
halabeharrezkotasunarengatik
ezgizatiartasuna egozte.

Musical elaborations

Edward W. Said

Ohartzean mugak hori bihurtu dira

eta hegaztiak

eta karratutzen diren gurutzeak

iragan beroa dute helburu

gaurra biharamun ahoskatuz

ezagutuko banitu praka leunetan galdutako masailak

larru-gerrikoak

eta axota poltsikotik aterako dut

eta gerrian sartuko: zuri
tinta odolaz ordezkaturako dizut: beltz

falta dena falta dela
kotoizko koltxoiek jan nazatela

kiwiak tixertetan behera begira daude
saiatuta ere borobilak
ezin dira laukitu

ezintasuna:
biderdiko zura tiraderan
argibideak:
metrailetan lagun on

zer du gaur lurrazpiak?
zerk du gelditzen? zerk zikintzen?
betaurrekoak dira sudurzaleenak
eta sudurrak gereziondozaleenak

estatu autoritarioa
ez da deus
egutegi barik

nire burua zartatzea irtenbide
zikintzeko barandilak hari eta arantzez
egunkariak berridazteko
itxaroten egongo ez bagina
ahaztutako zelai-isola
utzi isiltasuna lurrean
eta lurzoru margotu berriekin
zikinguko dira oinak
irudi garraxituak begipean margotzen
eta nik ez dut nahi hain arin
gugandik alde egin

DUNA BUSTIA: BUDAPEST

duna bustia
duna gorria

besoak gora eskulturek hormetan
tranbiaren trenbidea ibia da
ezker-eskuin euria
moka
txokolate gorria
aizu! orain esango dizut dena

kaleak zeharkatutako putzua
elektrizitateak pitzatutako esnea
denborak gogaituko ditu azalak
urak gizendu ditu espagetiak

baina zu zeu zalantzan
agian trena bidetik aterako da
badugu jaistea eta luzaro oinez helmugara salbu
iristea
badugu tirrik eta tarrak jarraitzea

gerrak dunako zubiak zartatu zituen
den-denak
ez bakarrik dunaren gainetik zihoazenak
jendarteko hamabi zubi ibai ertzik gabe gelditu dira
gazteluko mendiari begira

duna bustia
orain
duna zuri-gorria

trenbideak bitan banatzen duela mundua esan nizun
baina ez
trenbideak hirutan zatitzen du mundua

duna bustia
eta ez
ez duna
ez dena
ez erdia
duna bustia
duna erdia
basurdea saltsan
eta erbia

AMUA ERAZTUNA DA

hamalau burudun errimak
txapa darama gonazpikoan
mugimenduan ez dena hilik da
eta eraildako min-uhinaren platerean
den idazkariak begiak biraka darrai
malkoak hodei eginda biraka
bizirik den eulitxo zuria bezala
te egin berriaren edalontzian
karruseleko zaldiak begi urdinak ditu
eta zure bizi-ibilbidea baino randomagoa du

eraztunen erdigunean
hirukian eginiko bilaketak zorabiatu gaitu
ezintasuna da gure lagun handiena
agurra guztiaren hasiera
eta errealitaterik balego bezala
gau eta egunaren artean
plazera badela uste izatea bezala
bi minen artean

ez

ez

orain badakit mina bat dela
bakarra eta eraztuna bezala
borobil eta itxia
eta hatzez hatz badoa ere
beti dela eraztun
odoletan ere hotz geratzen dela
kanabera eskuari lotuta
eta amuak dira
ahoa eta begia bat egin dezaketen
eraztun hautsiak

amuak:
eraztun hautsiak
harrizko eskulturen oinetan
eskuen bukaeran begirada etsiak

eta zu prakako zulo berri
hariak askatu duten gune
iletsu tximinietako pintada
argirik gabeko argiontzi

zuregana lotu nauen amua
zure titiburu arroztua da

XALALA

Eta dutenean su artean lilia erre
izan gara amaigabe:
nola gaua den
ezpainak ireki arte
nola gorputzek egiten duten dar-dar
dantzalekuko musikarekin

eskuak altxatuko ditugu
gurutze-gorriak zaurituak daramatzanean
negar eginarazi nahi digutenean

*wir sind friedlich
was seid ihr?*

xalala abestuko dizuegu biluzik
ipurmasailak mugituz irribarre egiten dugun
neskatilatxoak garelako
eta gortina artean dena jango genuke
kearekin nahastuta
etorri eta doazen argiekin apainduta
harlauza hautsien gainean
oinutsik egiten dugu dantza
lizunkeria dugulako azken helmuga

eta dutenean su artean lilia erre
izan gara amaigabe:
nola gaua den sakon
jositako begiak zabaldu arte
nola gorputzek egiten duten dar-dar
dantzalekuko musikarekin
xalala abestuko dizuegu biluzik

bizitza mikatza da
eta batzuetan goxoa ere bada
berez mikatza dela
ahaztu ez dezagun

bizitza mikatza da eta
xalala abestuko dizuegu biluzik

BERLINEN ARRATSEAN

Berlinen arratsean

New York 59 egitasmo-etxean

Tupac Amaru filma botatzen dute

Kuban egina duela 32 urte

«excelente largometraje»

txapela buruan eta panazko txaketaz

«reconozco ese acento ¿de dónde provienes?»

Amerikako azentuz

«yo también soy vasco me apellido Echegoyen»

aitona-amonak Perun etorkin

orain bera Berlinen

Perutik aspaldi alde egina arrazoi politikoengatik

DDRn gero Leipzigen mediku

«nunca viví mejor que en el comunismo»

sakelakoan etxegoiendarren armarria

film kubanoek badute airean gelditzeko adorea

nola fadoak gela altuetan

«pero Bilbao es una ciudad elegante

mi hijo quiere vivir allí

él es independentista»

hegazti errariak Laboak
eta gaur Hector 79 urterekin
Berlingo gaztetxean topatzean
halako zeozer izan da
Bertoltek esaten zuen:
horiek dira ezinbestekoak

IBAI ONA

Zarenean fereka azal nirean
gaueko atzazaletan
ezpain tanta begirada gardenean
saihetsak belarri direnean
iris orlegiak ilun,
orain zure ez-tasunean
urruneko ohean
harramazka nazazu
bizkarrezur landu gabeen
kirola egin beharko nukeenean

goxo, xume, xalo
udare-ura zara otsaila amaitzean
xalo, xume, goxo

egunerokotasuneko laztana da
itxaropen goxoena
eta udarearen zukua

goxo, xume, xalo
udare-ura zara otsaila amaitzean
xalo, xume, goxo

HERMANNSTRASSEKO SPÄTKAUF BERRIA

Eta ekarriko dituzu
isiltasuna ezpainetan
haizea begi zuloetan

eguzki-betaurreko lantegiak itxita
bizarrak larrox bidai
eskatuko digute txartela trenean
ausweiss bitte
baina guk badugu

moztutako lokarria
garagardo
garagardo-botilak jasota
ordainetan zortzi xentimo

eta ilusioa ez da aski jateko
hermannstrassen
dendatxo berria irekitzean

R.A.W. TEMPEL

Zine porno batean, arnasestuka dabilzan
jubilatuek

Bi bikote lizunen gaizki filmatutako olgeta

Behatzen dute sinetsi ezinik,

Ez zen istoriorik bertan.

La poursuite du bonheur

Michel Houellebecq

Axelek eta Ratzingerrek
liga berean jokatzeko dute
Ratzingerrek Vatikanon du postu
Axelek Berlinen ustezko leku dekadenteetan
Aritzen da Benedikto sexuaren aurka aldarrika
Axel hamar urte gutxiagokoen bularrei argazkika
transgresioa eta errepresioa
liga berean balore berdinekin
burtsan
oxigeno barik

TANTA EDO MUNDUA SINPLEKI AZTERTUA

«Ez du garrantzirik» esaiozu lindari
ezpainak josten dizkiotela ohean aske izateko
azaldutako gauerdietan
isil

zoriontasuna tantez neurtzen da
egarri denak tanta nahi du (ura)
egarri denak tanta nahi du (esperma)
egarri denak tanta nahi du (leizehezeko ezitia)
gose denak tanta nahi du (zopa)
hotz denak tanta nahi du (butanoa)

«ez du garrantzirik» esaiozu lindari
ezpainak betazalei jostean gaueko erregina zara
lehoi artean
misil

gaizkizatea tantez neurtzen da

beldur denak tanta du soberan (izerdia)
goibel denak tanta du soberan (malkoa)
lortutako burutze oro besarkatuta
eri denak tanta du soberan (tak-tak zainera)
euri denak tanta du soberan (bestea)

pisuak itotzen ditu harriak eta ez haien koloreak

ZIKINAK

Zigarrokin

ahoan min

zuk egin duzu eskuinaldera begira

eta nik ezkerraldera

lo

ez muxurik ez laztanik

lo

mingotsa azkenaurreko gaua

beti zoaz

azkar kiribildu da zaina farolean

eta begi-ninia barandilan

ile garbi

hamaika gurari

malko gazi

odoletan gezi

masaila gorri

izar zaharrak ere desagertuko dira

estintorearen bitsaz begiak igurtziz

RUDOLF WERTHEN EUGÉNE
YSAYE-REN SEIGARREN
SONATA ZORROZTEN

Ganduak kaleak jan ditu
esne hotzak lady grey tea katiluan bezala

zelatan den gorria:
minez gerturatu zauria!

erortze zitala argiontziak
ahurñoaren burura eginikoa

zorrotz jan du
lurrak zangoa

Rudolfen hatzak
okel xehea dira

gortinetan nahastutako malkoek
odola dute inguruan

ahurñoaren uzkiko gorotz berria
bere osabaren haziarekin nahasia

lainoak kaleak irentsi ditu okak
komunzuloko ur gardena bezala

GAMELU HORIAK

Ardo orbainetan aurkitu dute
gorputz ahaztuek
kanaberazko egunsentia

lotan begira
gau honetan
hildakoek ezingo dute dantzatu
ez belarriak moztu dizkietelako
ez
ezta zapatak lapurtu dizkietelako ere
ez
hildakoak ez datoz dantzara
nutella ogitartekorik ez dutelako
zure zilborrharen inguruan

bakardade horia aurrean dator
sorbalda eta lepoa busti ditudanean
txokolatzeko larroxak eskuan dituela
—eguzkitan teilatuak—
bakardade horia,
ez nazazu utz esatera nindoan honetan

—odoletan untxiak—

malko eta irribarreetan bakardade horia
denbora opari dela erakutsi nahian
ez nazazu utz esatera nindoanean
hautsi da berogailua hamaika belarritan
udazkenean da abuztua

bakardade horia dator
arrain-usainik ez duen gurinezko zartagin

liburu berdeen lagunek —ezkertiarrek—
ia isilik diren itsasoetara jo dute
apoek geltokira bezala
bakardade horia dator:
lodi kale osoa hartuz
hilik jaio da

zutik jarraituko dut bateriak bukatuta ere
gameluei begira

zure zilbor inguruan

isiltasuna edoskiz

pasabidean

PFAND

bekokian txertatzen den atzamarrak
ireki du atea.
ezpain-marra zebratuan
da alkandoraren
txekorra, behorraren ondoan ari da
hitza esan nahian
ahoa irekitzen
ordea, ez da soinurik zure
belarri-zuloetan
dezifra dezaketena baino ilunagoa zara
eta txekorrak eskuak sudurrean
miazkatzeko behar zuen soilik belarri-zuloa
eta praktik atera den espadrilan
maitatu du beiradunak zuri-urdina
nola muntatzen dituzten botilak garagardo
lantegietan

Berlingo txiroak
pfand ehiztari dira
Kürfürstendammeko paperontzietan

eta altxatzear zen umeari
berunezko harritzarra bota diozue
ortografia bezala: zurrun
goraino doan arteriak
zain-sortzaileak
daraman odol oldea geldituko du

ortografia
kiwiei hegaz ezin dutela
oroitarazten dien dohain-eza
piano-jotzaileei txarangarako baliagarriak ez direla
errepikatzen dien mehatxuzko araua

eta dena txantxa balitz
zubiak ibaiertza balira
urrundik begiratu nauen
ilehoriaren begiklixkada
neke-keinua balitz
titiak erortzen ari zaizkio
errepikatuko diozu orduan buruari
baina zer nahi duzu ba
titiak gaspuxika izatea?

inprobisazioa baino ikasiagorik ez da

askatasuna gidatzen duen legea baino mugatuagorik
ez da
gezurra baino karratu horiagoak
triangelu beltzak dira soilik
(barnean dutenean eguzki
estilizatua)

ERDIGUNEA

Gaueko begia arranoz janztean
iragartzen da hurrengo geltokia:
zaplaztekoak dira txaloak

abuztuz beste egin dute karratuek,
oheandreaken sexuak
ura ehun kilometrora usaintzen du
nola elefanteen tronpak,
oheandrea: belardien amarauna,
artilezko galtzerdiei darie hammonda

Heidelbergerplatzen jaiotzen dira
Udalaitz eta Sankristobal,
aulki marroiak paradisu eta gazteluko dorreak
bidetzen diren gurutzean
zauriak sokak eusten ditu:
zure gonan

non da erdigunea?
«zu zara periferia» batek
«ez! zu zara periferia» besteak

marradun egietan aldiz ez da begi garbirik
eta ilargiak izarrak ditu inguruan

zure bularrak arrain-ontziko bale dira

ipurtargiz ipurtargi
tximiniak

erakutsiz

basamortua

eta zilarrean gora erortzen da

merkatu puztua

sukarrak maite zuelako gorrotoz

piztua

ikusarazi didazu zure bihurgunea

nik zango karratuz

begiratu zaitut

ostikadaka behizainak lez

titiburuetan galtzeko nire usaina

besotik heldu zaitu baina

mundua ispilutxoetan da sabaitik zintzilik;

gela honetako masail kolpatua,

satorrak masai zuriak dira

gora eta gora inoiz Zuberua (gazte hustea)

izango da hip
hop

beste norantzan orain
zazpi tribuak
baina ez dute usaindu ez nire antzutasun
hortxata

SAIATU NAIZ

Saiatu naiz
itsasoak putzu gisa ikusten
eta gainetik salto egiten
baina ito egin naiz

satorren lur-meten gainetik ere egin dut salto
baina belarriek harriak jo dituzte
ez ziren satorren lur-metak benetako mendiak ziren
eta sugarretan loreak margotu ditut gona mehetan

ze erraza den isiltasuna ospatzea
aho hustuak balkoian daudenean
ze erraza ezer aldatzea iraganean
eskuak lotuta txalotzean
ze erraza anafora bat egitea
bizitza pilula-kutxa neurtua bada

ez dizut su-etenik eskatuko
saiatuko naiz
zure balak margoa direla sinesten
saiatuko naiz

lurrean zerraldo

poztasuna bonbillen aurrean antzezten

ze erraza den isiltasuna

ze erraza den ezer aldatzea

eskuak lotuta txalotzean

ze erraza anafora

ze erraza pilula-kutxa

ILE BUSTIAK

Īkusten zaitut ilea bustita tantak lurrera
begiak itxi eta ukabilak zerura luzatzen
eskuoihala besapeetatik bularren gainetik

bekainak gora
leihoak handitu eta
ezpainak bereizi:
tu m'aimeras encore?
ez dakit erantzuten

oihala kendu eta ilea lehortu duzu
combien est longtemps pour toi?
bekainak gora
leihoak handitu
eta ezpainak bereizi:
nire mingaina jaten duzu
hortzek hormak marratu
urmaeletan muxu gehiegi
ametsa abiaduraren menpe
ulertu beharko zenuke

orain nire txanda da:

luzaroan ez zaitut ikusiko,
combien est longtemps pour toi?

dutxara noa

DDRKO BANDERA

Emakume ederren aurrean
Lewinskyren aho urtua naiz
Clintonen hankartean

alternatibobohemioberlinestailen aurrean
Milu naiz
Tintinen atzetik

heldu eta jakintsuen aurrean
kotxe gidaria naiz
behi bat bide erdian dagoelako Deliberriko kalean
zain

begiazpianmarrabeltzmorbosoen aurrean
ska dantzaria naiz
The Clashen azken kontzertuan

eskotedun Britney Spearszaleen aurrean
aulkia naiz
bertsolari finalean

pijipien aurrean

garia naiz

mailu eta konpas inguruan DDRko banderan

ahots grabegoxoen aurrean

bixera eklektikoa naiz

EULIA

ĭgo zaitez euli
egizu hegaz
eskaileratik teilatura

egizu hegaz
igo zaitez euli
eskaileratik teilatura

igo zaitez euli
eskaileratik teilatura
egizu hegaz

GREYSONEN BEGIAK

Ezti

begi

duzu soilik ezagutzen borobil gorrien itzala

ezti

egi

kiribilean abesti bera entzunez izaran

EGUN MOTELA

Egun motela izan da gaur
muxu eman nahi nizun

izan da eskualde trenak bezain motela
sandia zukua bezain gozoa

kafe tantaren gainean lo
ilargi izendatu zaitut eta zuk ni Ikaro

WUWU

hurbiltasuna

coca-cola da

gorria

rideau handia

askatasuna

zure aulkia

isiltasuna

chupa-chupsa da

horia

gozo txikia

maitasuna

zure argia

ETA...

Eta paper beltzean
beltzez idatziko dizut
nire telefonoa

eta muxu traketsa
emango dizut
gau ilunean

eta tango bat
xuxurlatuko dizut
triste zaudenean

eta esperma zuria
botako dizut
azal zurian

eta negu gorrian
abestuko dizut
internazionala

eta mina duzunean
ez zaitudala maite
aitortuko dizut

kabroia naizela
esango didazu
eta bai zital hutsa naiz

HILTZEKO INDARRA

Zuk eta zure begiek baduzue
ahate bat
bainuontzian flotatzen
baina ez dakizue
kafea hoztu delako duzuela
ahatea
bainuontzian

UZTAILA

Orain janzten direla
garbi eta txukun
eta orraztu elegant
hasi gara marraskatuta apaintzen
ileak edonola
eta bizarrak egin gabe

haiek betiko legez
jokoz kanpo uzteko asmoz
eta haien garbitasuna
eta txukuntasuna
eta orrazkera apaina
hortera dugu izendatu

haiek ez dute gusturik
txiroak dira
alles klar

07.12.31

maitasun guztia neureganatu dut
tutsiak eta hutuak bainuontzian
muxuka ari zirela
zorrotz

lehenaldian afixa politikoen ikuspegi bakarra
genuen
perestroikaren aurretik
muxuka ari zinela
hotz

zure belarriari kalko okerrak besterik
ez dizkiot gehitzen
muxuka ari zirela
hots

azkenaurreko trenez gasteizeratuko naiz

IZANGO NAIZ

izango naiz terrorista esateko
Allah badela jainko Kristo haina
Iruñea dela Euskal Herria Espainia haina
eta Baiona eta Hendaia ez daudela salgai

ta peau lisse est ma police

ABSENCE

j'aurais pu vérifier ton état
mais j'ai préféré pas le faire

36 GRADU

36 gradu egiten zituela
udaberrian Leonidovitxek
eskoziar lorea eman zion Alekseievnari
eta honek bular aurreko poltsikoan sartu zuen

joan zen uda eta negua amaitzear zela
Alekseievnak poltsikoaren
behe-aldeko haria askatu eta
jausi egin zen eskoziar lorea
Leonidovitxi esan zion
lorearen arantzek egin zutela zuloa

36 gradu egiten zituela
Leonidovitxek lorea jaso zuen
eta eskuak zaurituta
limoia edan zuen begiekin
Eukaliptoen basoan herrenek
Il manifesto irakurtzen zuten
herrenez herren

36 gradu egiten zituela
odolusten ari zen Leonidovitx
eta ahoak lurra irensten zuen

HIRU DILISTA NIHILISTA

atea aizkoraz zabaldu eta
lorea txikitu duzue
eta balaz saiatu denak
zulatu du ate osteko enborra
baina fruitua ez da erori

aulkipetik gurintzen diren
zizareek eta begi moztuek
praka urdina dute azken helburu

eta hotz garenean euria eskatuz
helbide bakarra plazera denean
oihukatuko dute
«ez nazazu estilo-liburu bihurtu»

ordua heltzen denean
desiraren marroi handienek
eta pareko bi astoek
buruaz beste egingo dutelakoan egotea
hain da naïf

ni naïf
zu zarëfnean
eta zerua gorritzean
hodei urdinek agur esaten diote egunari

txikitan zenbakiak marrez lotu nituen
eta irudiak ateratzen ziren
bat bi hiru eta gero lau:
erbia basoan

orain eman dizkidazun
ur botilen tapoiak batzen ditut
eta nekearen nekez ere
urtzen zaizkit erantzunak

egunsenti zulatu
nahigabeko egia zimur
esnatu gabeko gau
estatu hotzeko zintzur
eskatu beharreko aterpe...
gerrikoa zintudan
non teilatuak amets ziren

gari antzuen sasoiari
ongi etorriak dilista lehorrak

atea aizkoraz zabaldu eta
lorea txikitu duzue
desiraren morroi handiaren
ordua zetorreanean

gari antzuetan
ongi etorriak dilistak
non eraikuntzak desegiten diren
non bete ez diren platerak hosto lehor diren
zabaldu aizkoraz atea

GAUA

Lorerik gabeko lore
makurtu ez den gizarte
odolik gabeko iraultza
izarrik gabeko egun
malkorik gabeko hodei
zerurik ez duen balkoi

galdu nauenak
aurki nazala

ezer ez da garden basamortuan
eta azala titiburuan bezala
ilundu da gaua leihoan
eskuek ura eskatzean
agor pitxerra

estututa hil dute lorontzia
ahoskatu gaua
ahoskatu hasperena
hodeietako errege

Italiako hiri,
basoko laino
estal itzazu soka finak hareaz
ekarri dantzara txakurrak
jolas txikiena
irribarre inozoena
egin dezagun
azken aldia delako

odolik gabeko fruitu
makurtu ez den gizarte
zerurik gabeko iraultza
malkorik gabeko egun
lorerik gabeko hodei
izarrik ez duen balkoi

haritz-sare
negu-orlegi
mendi zuri
esbastika suntsitua bezala
noria geldia bezala
odol urdina hatzetan
barre gorria gauetan

eta lotu dira eztarrian
gauak altxorrekin:
xamur xalo xaxati
lorerik gabeko fruitu
izarrik gabeko gau
malkorik gabeko hodei
xamur xalo
barre gorria Hermannkalen
xamur xaxati
lorerik gabeko fruitu
hodeirik gabeko lore

ELURRA ETA BESARKADA

Hiltzen gara eta baliteke hori izatea
bizitzaren esanahia,
baina hizkuntza egiten dugu
eta baliteke hori izatea geure bizitzen
neurria.

Excitable Speech

Judith Butler

Elurra joan denean zurbil da kalea
aleak banan-banan irensten
hamaika begi arre hitzak erratuz
behin eta berriz otoiak amesten

ohituran errotu da besarkada
saiatu naiz historia iraultzen eta lortu dut
saiatu naiz zure begiak itsasora iraultzen eta
malkotu zara
saiatu naiz ezkertasuna iraungitzen eta ez dut lortu

hezetasuna sartu zait
minduz beldurtu nau

besarka nazazu besarka nazazu mintzen
ez dut elur artean besarkadaz beste egin nahi

hain dira inozoak eta txolinak olatu berriaren hitzak
hain da erraza visaren zenbakian otoitz egitea
hain da hodeia tanta eta negua hotz
dadila samina bozgorailuen gaixotasun izan

eta ez gaitezen zurbildu
elurra joan dadinean

hegoak zartatu arte doa
hegazkina eraikinaren aurka
sotil biharamuna

heriotza dakar
bizitza horizontalak
eta lorategiko eserlekuan etzateak
itzala
kutxa beltza
kale iluna

elurra joan denean zurbil da kalea
aleak banan-banan irensten
hamaika begi arre hitzak erratuz

HAMASEI

(e)raztunak hartuko gaitu
minutu bete barru
Hermannen kaleraino
baina norbait eseri edo ez eseri
erabakitzen duen uneak
nahiago du zutik begiratu)

luzaroan itxaron zaitut
eta orain azaltzean
ezpainak ireki eta ixten dituzu
soinuak eginez
baina badakit
ez zaitudala entzuten
esatea espero nuena
errepikatzen diot soilik neure buruari

kontzertura kantan ezagututa doana naiz
zuzenekoak grabazioan bezala
errepikatzen ditut buruan
ez ditut entzuten desafinazioak
ez naiz ohartzen hitzen tronpatzeaz

taldea ezagutu gabe kontzertura doanak
entzuten du hoberen:
aurreiritzi baikorrik ez duenak

nik
sarriegitan errepikatu diot neure buruari
zure ezpainetatik entzun nahi dudan hori
eta ezin naiz berriz ere birjina izan
zure hitzen aurrean
zuhaitz honek ezpal gehiegi ditu
orban haziegiak
eta sagarrak puntaren puntan daude
ez naiz iristen neure eskuez
eta zirkularregia da oroimena
eta haien basakeria zirkutarregia

zu nahi zaitut zelai umel
zu zuhaitz loredun
zu zelai loredun
zu nahi zaitut zuhaitz umel
soroak edalontziz landatzen

lurrean finkatutako sastraka baxuek
itzaltzen gaituzte

baina nik
zu ikusi nahi zaitut
zuhaitz loredun
irribarreak ernaltzen ari garela

*nächste station: hermannstrasse
endstation, bitte alle aufsteigen*

eraztunak estoldaratu dira
nola margo gorria
aurpegi zurira

nire baitan gelditu izan banintz
orain ez nuke eguzkiarengatik egingo zintz
nire baitan gelditu izan banintz
ustekabeengatik ez nuke egingo zintz
nire baitan gelditu izan banintz
geltokitik atera gabe

.

.

t

z

GILTZA EDO EZ NAZAZU ASMATU

Ne me quitte pas

Ne me quitte pas

Ne me quitte pas

Ne me quitte pas

La Valse à mille temps

Jacques Brel

dena ahaztu behar da
eta bakardadea begiratu balkoitik,
ez dira, ez, euririk gabeko herrialdeak
antena parabolikoen dom tom
ez dira arrazoiak kitatzeko gai

ez nazazu asmatu
ez itzazu ezizanaren inguruko ipuinak asmatu,
idatzi gabeko istorioetako
laino-erregeak ere gillotinatu dituzte
eta suari esan diote hotzegia dela,
iririk gabeko okinari ere

ez lur epela ez lur errea
ez mukizapia
ez ahatea kurriarekin

ez zaitetz nire begiradatik altxa
ez ireki leihoak
ez dut eguzkirik nahi: horman badira begi erraldoiak
ez dut kalerik nahi argiontziak ez badira
 espaloiaren gatibu

 eta txoriak euripean
tanten putzuan ogi apur bila

nola esaten dion aitonak ilobari:
urratsa motz eta begirada luze,
nola esaten dion aitonak ilobari
esaten dizut nik:
ez ireki leihoa

denbora ez da agurra
ez nazazu laga

NESKAK

Seinalearekin bat
gazteluko erakusleihoan
uraren dantzak katiluei begira

uste nuen gaua ez zebilela neskatan
betaurrekoak hautsiak zituela,
eta uhartean itxoiten zintudan kafe zapore
belarri-kopetara igo zintezen;
ezaugarri lakarrak lurmuturren gailurrean;
hosto lehorrak udaberrian lez
hautsiko nizuke panderoa

unetxo bat!
zain dut esnea
gitarra elektrikoan

poltsikoan
giltzak dira txanponen lagunik onenak,
hartzaren biribilketa
sozialdemokraziaren folklorea,
seinaleari begira

uraren dantzak erakusleioan
gazteluaren ostean
Berlin

jaso dut zure eskutitza kizkurrei lotuta
gaztaroa delako erret kontuen gudan gogokoen
ez zintudalako maite
poltsikoan

nola erortzen den azukrea lurra dardararaziz
il est déjà trop tard

gereziz
artaziz
inurriz
irudiz
jantzi gabeko argazkiak

ESANAK

Esan zidan:

liburutegitik mugitu gabe
bidaiatzen zuen Jules Vernek

esan dit:

bihar gela txukundu

esan dit:

denek egiten dute oroimenaren alde lan
nork egingo du ahanzturaren alde?

esan diot:

zuk eta nik egin genezake

baina Görlitzer eta Kottbusertor geltokien artean
ez da doinu vietnamdarrik entzun

Aral gasolindegi urdinak bertan darrai

Kreuzbergen txirrindulari

eta metro bidaiariak daude soilik

behin esan nion:

konpainia interesgarrian

desplazamendua bidaia egiten da

eta asteartean esan nion:

agian bere gorputza egon izan da
aipatu dituen hamaika leku horietan
baina buruak behintzat
ez du gorputzarekin bat bidaiatu

eta taxiak
geldirik daudela
panterak dira
lozorroan
zain

ni ere Jules bezala
liburutegian naiz
baina burua beste inora doakit
burukoa batera hondoratu genuen egun horretara
baina ez dakit
zergatik burua eta gorputza ez dauden ardatz
berean

zergatik gizona den hiruzefaloa edo hirufaloduna
eta orain diot:

Samariterstrasseko geltokiak arrazoi duela:
ahantzuraren alde abaildu arte

DDRko etxeak dira nire sorburu

taxiak geldirik daudela

orain

bagoiko kanpai isildua besterik ez zara

trakets

ANBULANTZIAK

Euriak janzten zituen adatsak
Victor Greyson kalean
berandu zebiltzanek soilik
egiten zuten korrika trumoipean
tanten amaiera itxaroten ari nintzen horretan
ez zintudan busti nahi balkoitik behera begira

anbulantziak dira maitale finenak
beti bueltatzen dira zauriturik
sendatuko dituen larrialdi-tunelera

eta eserita nintzela
belarria loratu zenidan
eta bizkarra inurritu
nola untxiek eraldatzen dituzten lokatz-bideak

nola isurtzen diren malkoak
ninitik barnera
esnatzen gaitu gauak:
bi ilargidunak
zerurik ez duenak

gameluen gatazkan
lau mendi nahasi
Tokioko azokan salgai
bizigailur
bizimutur
lau tontor
eta aterperik ez

agian behar genuke
erizaina eta ez olerkaria
edo labana zainean
eta ez kamamila mahai gainean
edo soka lepoan
eta ez lagunen besarkadak
edo antzutzea
eta ez ohe-mendietan galtzea

anbulantziak dira maitale fidelenak
gasolindegietara doazenean
eta helmuga urrunetan daudela ere
beti bueltatzen dira

anbulantziak dira
izarretako zinemak

gazela nekaezinak
neguan ere lorik egin gabe ehizan dabiltzan hartzak
itxaropen argiak

anbulantziak dira
haizeak adar guztiak zartatzen dituenean ere
eta garabiek ehun eta hiru metroko
berogailuak eraikitzean ere
anbulantziak dira
gauero gonapetik datozen bidaiariitsuak

AMIANTOZKO BORREROAK

S-Bahn sareak dirau zure atzartzean
eta atzo ez bezala tanta bila nabil hondartza
lehorrean

larroxa urdinak ederrenak direla esan nizun
baina zuk azaldu zenidan
berez zuriak direla eta tinta xurgarazten dietela
larroxa ito zutela
eta ura mendazko siropez nahastu zenuen
edalontzian
eta sudurpean jarri

hala ere Berlingo horma zulatuetao begiak
gatz-borobil diren neurrian
dira metrailetak arte objektu,
azukrerik ez duen limoi-zukuan
kobazuloko putzua da zure begia
eta geltoki horian lurreko marra zuria
ez gurutzatu, ez gurutzatu
zure ipurmasailen arteko zauritxia

isiltasunean ardoa eta odola

vino i crev

bukatzen da ibilaldia zure bekainean
amiantozko aurpegian
non ezta mendiko bide den

EGONGO EZ NAIZEN
EGUNAK HATZEZ ZENBATU
DITZAKEZU ESAN ZENIDAN
ETA GUTXIAGO BAZENITU
NAHIAGO NUKE

Idien emankortasuna jokoan jarri gabe
adats orraztuak zuenak dira

ez duzue alderdiko agiririk behar
hori guztia entzungailuen gogaia da

marra paraleloen artean nagoela
zure zangoak nire zubi diren honetan
aulki gaineko taupadetan
orain torlojuek berriz ere
hutsunerik beteko ez dutela zin egin dutenean
eta daratuluek ez gaituztela zulatuko
etorri zara zu katurik gabe hankartean

zuritzeko mundua nire adatsez

duela aste bi
Berlinen batuko ginela
egin nuen amets
eta duela astebete
kitatu ninduzun
bai

ona zein ergela den
trop bon trop

con

batengatik

OHEA AGINDUTAKO
LUR DENEAN ETA OHEA
AGINDUTAKO LUR HUSTE
DENEAN

Ohean lo da bat eta bestea sartu da
lotu dizkio besoak eta estali begiak
biluztu du eta bultza ohe izkinara

mende erdi igaro da eta
bitartean moztu dizkio bi zangoak
odolustu du

orain zerra eskuan
ohea erdibitu nahi du
ohean ziren haren gorputz zatiak eramanez
heldu berri denak legeak ditu
eta zerrak
eta elektrodoak
eta azidoa begietarako
eta prentsa

ohean lo ametsetan zegoena
gaizkilea da
galdutako zangoez oroitzeagatik
laguntza eske
besoekin duen indar apurra xahutzeagatik

gilo, mazmouria, shuafat, kalandija, ofra

izara zurietatik
ezin da
odola ezabatu

MUNDU-MAPA

helduko dela

helduko dela

eta egunero dugu bezpera

Teilatuko lizarra

Koldo Izagirre

Nire mundu-mapak

ez du iparrik

ez du hegorik

nire mundu-mapak

orain zartatu ostean

bi ekuatore ditu

bi ekuatore begiak lausotzeko

bi ekuatore malkoak isurtzeko

prozeduraren haginduetara

ortzi mugarik gabeko mapak

lurra hirutan banatzen du

lotsagabeki

munduan edonon egonda ere

bi ekuatore hauts artean desagertuak
ni lotsaraziz

bi ekuatore

Quitotik Nairokira bat

Madrildik Pekinera bestea

nire mundu-mapak

bi ekuatore ditu

eta galdua du iparra

ZAIN DARAMAGUN SUGEA

Zain daramagun sugeak
ez du deusetarako balio

azken pintxoak
ozeano zabalak izan dira
txaluparik gabe
irlatxoz irlatxo
nahiz eta idatzitako olerkiek aurkakoa adierazi
nahiz haurra iruditu nerabe
nahiz heldua ikusi atso
nahiz intxaurrak eman ezkiek
nahiz amildegitik enborra hazi

atzerapenezko olatua: egia esateko
zailtasunean zerrautsezko zutabe
iraganean irinezko ortzadar

gortinetako loreak leiho egin dira
eta zure begi ezkiek
hemen behar lukete

nireen zain
eta ez Italiako zentro-ezkerreko
koalizioaren irudian

NOUVELLE DISPOSITION D'UNE VIEILLE CHAMBRE

Oihartzunari esker lortu duzu
marakak bi aldiz azkarrago jotzea
pianoari ordea ez dio onik egin oihartzunak
hemengotarra naiz
ezkorra
haizeak azpimarragailuak bustitzean ere
tapoi gorritz kolakaua edalontzi inguruan
eta kanela-gailetan azukreak artifiziala dirudi
metronomoa ondoan duela
gauean bainatu naiz eta hil edo bizirik
malkoa naiz kreman
zaurian negarrez
eta kanelaz edo oihartzunez
dena zait gordailu
iturri argien urdinean
itzalkundearen aurrean
eszena izartsua
dena delako zelai antzu

wir wollen alles!
baina ezin

ZURE AURPEGIA

Zure aurpegia
ez da orri zuria
begiak baititu

zure begiak
ez dira hiztegi
ez baitira berbekin solasten

zure bazterrak
zuhaitzez zuhaitz
dira baso

huri-usain diogu
ozono-usain denean

askatasunaren alde:
debekua

begiak baititu
belarria da horma

limoi zukuari esker
da gozoa marrubia

errespetu diogu
harresi esateko

distantzia diogu
beldurra esateko

IREKI DITUT BESAPEAK

Axolagabe, ironiko eta bortitz nahi gaitu
jakituriak -
emakumea da bera,
gerlari bakarra maite du beti...

Zur Genealogie der

Moral

Friedrich Nietzsche

Orain badakidala ez zarela izango nire eskuen
luzapen
ez zarela izango galdera preziatuen gogoeta-leku
zure hitzen oihartzunak kafe orbanak jango dituela

luzaroan zelatari
luzaroan ohatze galdu

baina orain ilargi beteak
moral berri soilik esan nahi duen honetan
nahiko nuke zuloa egin harean
eta itsasoak jan dezala
malkoek baino lehen

nahiko nuke zebrek nire eztarriak
baino ozenago abestea
fotokopiagailuetara harilkatu diren
usain sainduen gailetak
legamiaz eginak izatea

jakinaren gainean ileak
aspiragailuek asmatu zituztela
asfaltoak marmelada egin ez dezan

ireki ditut besapeak
bizkarrak erretzeko
urtaroen ohorean

orain badakidala bi alboen ostean
ez zarela jada nire zazpigarren ezpainen jabe izango
margotuko dut begizuria arrez eta ninia haziz
ikusten ditut zure oinak
azteken izaretan / argiari jamaika

hiztegiak=harresiak

AGUR-AMOUR

Il n'y a pas d'amour heureux

La diane Française

Louis Aragon

Ongizatea arantzan dudala azaldu zaizkit zauriak
hitzak errepikatuz mozkor
eta zoriona agurrarekin batu nahi izan dut
ahaztuz iluntasuneko dardarak

nola gauak jan duen argia irentsi duzu beroa
zure begi handien heldutasunez
eta zapatarik gabeko gudariak miretsiko ditut
suzko gurdiak harrikatzen dituztela
ez da maitasun zoriontsurik

leihoan buztana trabatu duen astigarrak
enberrari eusten dio indarrak lausotu arte

ahuldadeak itoko gaitu goiz eguzkitsuetan
begiak itxita belarriak taupadetan ditudala
sinesten dut zu ere hotz zarela gaur

eta gure astigarrek ez dutela sustrairik
zure bularrean naramazulako lozorroaren umezurtz

nola malkoak ordaintzen diren abesti ederren
oinetan

jaio dira ximurrak hatzen gerizpean
il n'y a pas d'*agur* heureux

orain ezta den hori ere dakusagu zuri
non janzkera genekusan zauria dela iruditzen zaigu
errepikatuz zure begi handiekin hodeiak zelai direla
denborak jan ditu aldi berekoak ziren ibilerak
ateetan eta karriketan jartzeko ez dela
ez zorioneko agurrik
il n'y a pas d'*agur* heureux

BIDE HUTSA

haize-burrumba zen etxean
eta itxi nuen atea
baina korrontea zen pasabidean
eta itxi nuen leiho bat
eta beste bat
baina haize-burrumba zen etxean
eta itxi nizun ahoa
eta hankartea
baina korrontea zen pasabidean
eta itxi nituen begiak
eta ahoak
baina haize-burrumba zen etxean
eta itxi nuen bihotza
eta desagertu zinen
eta joan zen haize-burrumba

DIMENTSIOBAKARDUNAK

Ez dut
etxerik nahi
etxeak teilatu
esan nahi badu

ez dut
konpromisorik nahi
konpromisoa folklorea
bada

ez dut
oherik nahi
ohea loa
bada

MARRETAN HUTSUNERIK EZ DA

Senti ezazu mizpira eztarrian
eta zatoz suzko argien dantzalekura
senti ezazu zisjordania autobusean
birikak belarrietan lehertzean

senti ezazu hutsa begietan
zapatak busti zaizkizula
senti ezazu B-52ak eta newtonek
bidaltzen dizuten askatasuna

senti ezazu metalezko soka
hatzak odoltzen dizkizula
senti ezazu besoek ez dutela hegan egiten
burua hirugarrenetik espalaira botatzean

hotzikaran malda dakusat soilik
eta marretan hutsunerik ez da

BEHARRA ETA GOGOA

iristean esan zenidan
«isiltasuna ere musika da»

entsaladaren aurretik
«hutsunea ere espazioa da»

ostean
«beltza ere kolorea da»

postrean
«begi eta keinuak ere hizkuntza dira»

kafean
«operazioa egitean min egiten badizute ere
sendatzeko tenorean gertatzen da hori»

alde egin baino lehen esan zenidan
«adarrak jarri nizkizun
baina zu bakarrik zaitut maite»

GERRIKOA

badakit zergatik zenidan
gerriko beltza oparitu
betiko estutzen nauzula
nahi zenuelako ziurtatu

HILZAILEAK, PUTAK ETA JESUS

hiltzaileek dute soilik
bizitza eskuartean izateko aukera
hiltzaileek eta zakila hortzez
mozten dakiten putek

jesus gurutzatua da
besarkadaren antitesia
besarkadarik gabeko maitasuna
kristorena da

eta nik ez dut hain
arin
gugandik alde egin

ITSASONTZIA

Zure eskuetan
labana muxu da
iragana sarraila
zelaia mendi
hutsa gezur
eskua hezur
mauka tixert
haizea malko

ALLÉES BOUFFLERS

Zure begiak orraztuz
zure titiak arroztuz
zure uzkiak arrotz-tuz

ez zaitudanean

LOZORRO ZELULAK

Esan nizun

jihadaren

lozorro-zelulak bezalakoak izan gintezkeela

edonon

edonoiz

lehergai

baina

zu han

eta ni

hemen

ginela

jainkoz aldatu zinen

eta orain

lozorro-zelula zara baina zure leherketaren uhinak

ez nau joko